

ETXEAN KONPOSTA EGITEKO OHARRAK

KONPOSTATZEKO ERABILTZEN DIRENAK

Sukaldekoak:

- Fruta eta barazki hondarrak
- Ogi lehorra.
- Te poltsak eta kafe hondarrak.
- Arrautza oskol hautsiak, fruitu lehorren oskolak eta hezurak (kantitate txikiak).
- Sukaldeko papera eta paperezko ezpainzapiak.

Baratze edo lorategikoak:

- Loreak eta hosto berdeak edo lehorrak.
- Soropileko belarra eta beste belar mota batzuk.
- Baratze landareen hondakinak.
- Inausketa hondakinak, lastoa eta abarrak, puska txikietan edo xehatuak.

EZ SARTU KONPOSTATZAILEAN

- Haragi eta arrain hondarrak (usaina bota eta intsektuak erakartzen ahal dituzte)
- Animalien gorozkiak (bukaerako konpostak patogenoak izaten ahal ditu)
- Belar gaiztoak eta landare gaixoak (belar gaiztoen haziak konpostean gelditu eta, geroago, ernatzen ahal dira)
- Pixoihalak, irudiak dituzten aldizkariak eta zigarroen iragazkiak.

MATERIAL HEZEAK

Fruituak, barazkiak, soropileko belarra, belarrak... orlegi kolorekoak izaten dira, hezetasuna ematen dute eta nitrogeno kantitate handia dute.

MATERIAL LEHORRAK

Hosto lehorrak, lastoa, sukaldeko papera, abarrak, ogia, oskolak eta hezurak... marroi kolorekoak izaten dira, hezetasun soberakina xurgatu eta karbono proportzio handiagoa ematen dute.

PROZESUAREN HASIERA

1. Konpost ontzia lurraren gainean jarri. Lurra ukitu behar du.
2. Hasieran, material lehorrak eta hezeak nahasirik dituen 20 cm-ko geruza bat jarri, prozesua martxan jartzeko. Lur freskoa edo konpost helduko geruza mehea gehitu, prozesua azkartzeko.
3. Konpost ontziaren hezetasuna zaindu. Hasteko, etxeko hondakinen hezetasun naturala aski da. Nahastean edo iraultzean lehorra ematen badu, kontu handiz ureztatu eta irauli hezetasuna banatzeko. Materialak ez du busti itxura izan behar, bestela, kiratsa sortzen da, oxigenorik ez baitago. Oso lehorra ematen badu, irauli aldian behin, aireztatze erabiltzen den lanabesa erabiliz. Komenigarria da hondakin kantitate handia uzten den guztietan aireztatzea (astean behin, gutxienez).
4. Izan pazientzia. Lehenbiziko konpost heldua 6-9 hilabeteren buruan lortzen da. Konpost helduan ezin da hondakin organikorik antzeman, kolore iluna du, baita lur hezeko usaina ere. Nahi izanez gero, bahetik pasa daiteke, konpost bihurtu gabe dauden hondakinak bereizteko, eta horiek konpost ontzira itzultzeko.

AGER LITEZKEEN ARAZOAK NOLA KONPONDU

ARAZOA

ARRAZOIA

IRTENBIDEA

Kiratsa	Ez dago behar adinako oxigenorik/hezetasun sobera dago/edo nitrogeno sobera dago	Irauli edo, bestela, hondakin lehorrak gehitu
Euliak daude	Janari hondar sobera dago eta/edo azalean daude	Ez erabili pestizidarik. Janari hondarrak material lehorrez (hostoak) estali, eta materialak ongi nahastu konpost ontziaren barnean
Konpostak ez du aurrera egiten, edo motel doa (1)	Hezetasun sobera galtzen ari da, konpost ontzia eguzkitan jarri delako. Sobera irauli da. Hondakin lehor sobera.	Jarri konpost ontzia beste leku batean. Ez irauli hain maiz, edo, bestela, gehiago ureztatu nahasketa. Hondakin heze gehiago gehitu eta irauli, nahasketa uniformea lortzeko.
Konpostak ez du aurrera egiten, edo motel doa (2)	Hezetasun sobera dago. Hondakin heze sobera dago. Euria dela eta, nahasketa busti egin da, edo sobera ureztatu da.	Maiz irauli egun batzuetan, konpost ontziaren azalean gelditzen diren hondakinen bidez hezetasuna galtzeko. Hondakin lehorrak gehitu eta irauli, hezetasun egokiena lortzeko.
Nahasketak ez du tenperatura alturik hartzen.	Ez da arazoa. Egiten ari den konpost mota hotza da, eta hori ohikoa da konpost ontzia kantitate txikiak botata betetzen bada. Neguan tenperatura altuak lortzeko, ontzia beterik hasi behar da prozesua.	Tenperatura altuak lortu nahi badituzu, neguan konpost ontzia beterik hasi behar duzu prozesua, edo, bestela, zain egon giroko tenperatura altuagoa izan arte (udaberria-uda).

